

Labayrurekin hitzarmena sinatzea

Patxi Baztarrika Galparsoro
Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Bilbo, 2016ko maiatzaren 23a

Elkarlanaren albistea beti da pozgarria. Eta are pozgarriagoa da, elkarlanaren emaitza argi ikusten denean. Gaur sinatzen dugun hitzarmenak, urteetako lankidetzaren baten jarraipena jasotzen du, euskararen mesedean. Lankidetzaren horretan elkar hartuta goaz Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Labayru Fundazioa. Pozgarria da, eta plazera, mahai hau partekatzea Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatuarekin, eta Adolfo Arejita Labayruren zuzendariarekin.

Bizikidetzarako hizkuntza bizia nahi dugu euskara. Gero eta biziagoa. Gero eta erabiliagoa. Eta, horretarako, iturri ugariatik edan behar du euskarak. Goi mailako erregistroetatik edan behar du, jakina; baina edan behar du, baita ere, erregistro arruntetatik, arloz arloko erregistroetatik; eta edan behar du erregistro ez formaletatik. Erregistro ez formal horiek, askotan, herri hizkeretan, euskalkietan, gauzatzen dira. Hori da modu bakarra, euskararen iturri zaharretik beti ur berria edateko. Hori da hizkuntza baten bizitasunaren seinale.

Lizardik “noranahikoa” nahi zuen euskara, eta inoiz baino hurbilago gaude gaur Lizardiren ametsa betetzetik. Euskara erabiltzen delako han eta hemen, honetarako eta hartarako: administrazioan, hezkuntzan, IKTetan, unibertsitatean, hedabideetan, finantza entitateetan, eta abar. Argi dago: euskara bera prest dugu “noranahikoa” izateko.

Euskarak, gainera, hazkunde ikaragarria izan du azken hiru hamarkada hauetan. Azken datu ofizialak 2011koak dauzkagu. 1981etik 2011ra gertatu den hazkundera oso handia da. 1981ean, EAEn, 5etik 1 besterik ez zen euskalduna; eta gaur egun, 3tik 1 pasatxo da euskalduna. Bizkaian, 1981ean halako bi dira gaur euskaldunak: % 15 izatetik % 30 izatera pasa dira hogeita hamar urtean euskaldunak. Eta 25 urtetik beherakoen arteko jauzia ikaragarria izan da

Bizkaian ere: lurralde honetan, euskaldunak, 1981ean % 12 pasatxo izatetik, gaur egun % 65etik gora izatera pasa dira.

Aurrerapen bikoitza da, beraz, euskara egiten ari dena. Batetik, esparru berri askotan tokia irabazten ari da; eta, bestetik, herritar asko eta askoren ezpainetara iristen ari da, oso bereziki gazteen artean. Eta aurrerapen bikoitz horretan, euskararen batasuna da giltzarri nagusietako bat. Hazkunde hau ezinezkoa izango zen euskara baturik gabe. Eta behar-beharrezkoa izaten jarraitzen du euskarak hazten jarrai dezan eta gero eta hizkuntza hedatuagoa eta erabiliagoa izan dadin.

Beste inoiz esan dudan bezala, euskara batuak euskal hiztunon komunitatea sendotu du, euskalki bateko eta besteetako hiztunon arteko komunikazioa erraztu du, euskara gizarte modernoaren beharretara egokitu du. Ez da munduan hizkuntza normalizatu eta indartsurik, estandarra eta batua ez duenik.

Baina euskararen batasuna, euskara batua, ez dago herri euskarari kontrajarria. Izan da herri hizkerak edo euskalkiak eta euskara batua kontrajarri nahi izan dituenik. Izan dira, eta badira, baita ere, euskara batua berez eta nahitaez lehorra, eta, aldiz, herri hizkera nahitaez bizia eta txispaduna balira bezala irudikatzen dituenik. Bata nahiz bestea, ikuspuntu okerrak dira, dudarik gabe. Dena baita euskara: batua nahiz euskalkiak, erregistro jasoak nahiz arruntagoak. Nahi dugun euskara biziak, gune eta giro guztietan ibili nahi du eroso, naturaltasunez, ohikotasunez. Sukaldean, egongelan, lagunartean bezala, baita eztabaida filosofiko, zientifiko, politiko edo akademikoan ere. Euskal Herriko Ekialdean bezala, Iparralde, Mendebalde edo Hegoaldeko lurretan ere. Toki bakoitzean, giro bakoitzean, bertan berezkoa duen gatz-piperrarekin. Baina toki guztietan bizirik, gero eta ezpain gehiagotan, gero eta pantaila eta gailu gehiagotan.

Erronka horretan irabazle ateratzeko, asmatu behar dugu herri euskara eta euskara estandarren arteko elkarbizitza ongi antolatzen. Elkarren osagarriak direlako. Guztiek euskara bat eta bera egiten dutelako.

Langintza horretan, zeharo estimatzekoa da Labayru Fundazioaren ekarpena. Ekarpén funtsezkoa da urtetan zehar Labayru egiten ari den ekarpena. Arlo ugaritako ekarpena, baina nik bereziki nabarmendu nahi dut, gaur hemen, Bizkaiko euskararen corpora lantzeko eta bultzatzeko egiten duen ekarpena, eta lexikografiaren arlokoa. Eta ekarpen ezinbesteko hori da, hain zuzen, hitzarmen honen bidez aitortzen, babesten eta sustatzen duguna, lau urterako konpromisoarekin, diru-laguntza bidez. Ondo inbertitutako dirua izan da aurreko urteetako, eta ez dut zalantzarik euskararen garapenerako ondo inbertitutako dirua izango dela Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak gaur sinatzen dugun hitzarmen honen eskutik datozen lau urtetan Labayruren poltsan jarriko dugun dirua.

Bizkaiko euskararen lexikografia eta corpora lantzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du Labayru Fundazioak hitzarmen honetan. Eta euskararen ikertzaileen prestakuntzan unibertsitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, baita ere. Bi konpromisoak dira oso garrantzitsuak.

Lau urterako txapela dugu hitzarmen hau, urtez urte proiektu zehatzak garatzeko erabiliko duguna. Labayru Fundazioak Eusko Jaurlaritza bidelagun izan du eta izango du langintza horretan. Pozik gainera, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, elkarren eskutik. Elkarlana gauzatuz, herri erakundeon artean eta herri erakunde eta gizarteko elkarte/fundazio eta enpresen artean. Elkarlan zintzo eta leialean, batzuen eta besteen ahaleginak metatuz. Iaz, 2015ean, 118.270 euro jarri zituen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Labayruren esku. Eta aurten ere, 2016an, beste horrenbeste jarriko dugu, 118.720 euro, alegia.

Zoriondu nahi ditut, amaitzeko, bai bizkaitar guztiak, bai eta euskal hiztun guztiak ere, Labayru Fundazioaren lanari esker euskararen bizi-indarra sendotzen delako. Eta zoriondu nahi ditut, nola ez, Labayru Fundazioko langile eta kide guztiak, egiten duten probetxuzko lan handiagatik.

Besarkada handi bat luzatzen diot, halaber, Ander Manterola jaun adiskideari, Labayruren hainbeste urtetako hauspoari.

Eskerrik asko.